

"Nola prebenitu Beldur Barik jarrerarekin indarkeria matxista gazteen artean" ikastaroaren balorazioa

Gazteen Euskal Behatokiak 2021eko formakuntza planeko tailer bat antolatu du

'Nola prebenitu Beldur Barik jarrerarekin indarkeria matxista gazteen artean' tailerra antolatu du, aurrez aurre eta on-line moduetan irailaren 22an. Formazio honen **helburu nagusia** honako hau izan da: Beldur Barik programa, haren funtzionamendua eta tresnak ezagutzea.


Ikastaroa **Irati García López de Aguiet** eman du. **Beldur Barik-eko Idazkaritza Teknikoaren heziketa-edukien arduraduna (ERROTIK Kooperatiba Feminista).**

48 lagunek partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- % 61 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.
- Beste % 35, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Azken % 4k bestelako profila zuten.

Ikastaroak lau ordu eta erdiko iraupena izan du eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):

**Ikastaroaren balorazioa
(batez bestekoa, 0tik 10era doan eskalan)**



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta